

## IRAKURLEKU ETA TALDE-LANETARAKO GELAK ERRESERBATZEKO JARRAIBIDEAK



### 1/ ALTA QR4services aplikazioan

- Izen deiturak
- **Identifikazioa: NAN** (jarraian eta letra maiuskulaz, Adibidez: 13456789X)
- Posta elektronikoa (erabiltzaile bakarra izan behar du)
- Pasahitza

Kontuan hartu beharrekoak:

- UPV/EHUKO kideek bakarrik eman dezakete alta aplikazioan, eta beraiek bakarrik sar daitezke biblioteketako irakurgetara.
- Ikasle batek arazoren bat badu aplikazioan alta ematean, mezu elektronikoa bidali behar du helbide honetara: [tecnico@qr4events.com](mailto:tecnico@qr4events.com)

### 2/ ERRESERBEN ALTA

[www.qr4services.com](http://www.qr4services.com)

- Aplikaziotik erreserba-eremura sartzen da, goiko eskuineko menua sakatuz:
- Erreserba egiteko, erreserba egin nahi duen pertsonaren NANA sartu behar da.
- Erabiltzailea aukeratzea: **ABONATUA**.
- Erabiltzaile bakoitzeko banakako plaza bakarria erreserbatu ahal izango da.
- Talde-lanetarako gelak erreserbatzeko, gutxienez **3 kide** egon behar dute taldean. Gelako erabiltzaile guztiak NANarekin identifikatu behar dira.



### 3/ ARAUDIA

EDUKIERA, TXANDA ETA ALDEZ AURREKO ERRESERBA ARAUDIA

BIBLIOTEKA	EDUKIERA	ORDUTEGIA
Arabako Campusa - Koldo Mitxelena	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 361 irakurleku</li> <li>• 6 talde gelak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Astelehenetik ostirala arte: 8:30-20:30</li> <li>• Larunbatak: 9:00-14:00</li> </ul>
Bizkaiko Campusa - Leioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 296 irakurleku</li> <li>• 17 talde gelak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Astelehenetik ostirala arte: 8:15-20:30</li> </ul>
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea - Sarriko	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 235 irakurleku</li> <li>• 5 talde gelak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Astelehenetik ostirala arte: 9:00-21:00</li> </ul>
Bilboko Ingeniaritza Eskola	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 118 irakurleku</li> <li>• 5 talde gelak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Astelehenetik ostirala arte: 9:00-21:00</li> </ul>
Gipuzkoako Campusa - Carlos Santamaria Zentroa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 363 irakurleku</li> <li>• 16 talde gelak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Astelehenetik ostirala arte: 8:30-20:30</li> <li>• Larunbatak: 9:00-14:00</li> </ul>

- **Aldez aurreko erreserba:** igandero, 19:30ean, [www.qr4services.com](http://www.qr4services.com) webgunean argitaratuko dira hurrengo asteko txandak. Une horretatik aurrera, gehienez egun bakoitzeko ordu beteko 4 txanda (4 ordu) erreserba daitezke.
- **Eguneko erreserba:** aurreko eguneko 21:30etik aurrera egin daiteke, iraupen-mugarik Gabe (**QR4services** aplikazioa mugikorrean instalatuta duten erabiltzaileek jakinarazpen bat jasoko dute, eta bertan adieraziko zaie hurrengo egunerako zenbat leku dagoen erabilgarri).
- **Talde-lanetarako gelei** dagokienez, ordubeteko bi txanda erreserbatu daitezke aldez aurretik. Egun berean luzatu ahal izango dira, gela libreak badaude.

### 4/ BIBLIOTEKARAKO SARBIDEA

- Erreserbatutako txanda hasi ondoren sartuko da liburutegira (ez lehenago).
- Liburutegira sartzeko, **QR4services** aplikazioa irekita eduki behar da, eta QR KODEA SAKATU BEHAR DA, sarrerako irakurgailuan txkeoa egiten den UNEAN (ez lehenago). Taldeko lanetarako geleen kasuan, erabiltzaile guztiak txkeoa egin beharko dute.

### 5/ BIBLIOTEKATIK IRTETEA

- Erabiltzaile batek liburutegia behin betiko uzten badu eta hurrengo txandetarako erreserba gehiago baditu, honako hauek egin behar ditu:
  - ✓ Harreran irteera txkeatzea.
  - ✓ Geroko erreserba ezeztatzea eta plaza horiek beste pertsona batzuentzat libre uztea.
- Erabiltzaile batek liburutegia behin betiko uzten badu eta erreserba gehiago eginda ez baditu, ez da beharrezkoa harreran irteera egiaztatzea.

### 6/ BERTAN BEHERA UZTEA

- Erreserba **QR4services** aplikazioan ezeztatu behar da txanda hasi aurretik.
- **PENALIZAZIOAK:** erreserba bat egin ondoren liburutegira joan ez eta bertan behera uzten ez duten pertsonak zigortu egingo dira: 2 txanda ez badira txkeatzen, ezingo da astebetetz erreserbarik egin.

KONTSULTEI ETA GORABEHEREI ERANTZUTEA

[tecnico@qr4events.com](mailto:tecnico@qr4events.com)  
 [astean 7 eguneko arreta]